

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

AURKIBIDEA:

- 1. Helburua**
- 2. Instrukzioen interpretazioa**
- 3. Kontratu motak**
 - 3.1 Obra-kontratuak
 - 3.2 Hornidura-kontratuak
 - 3.3 Zerbitzu-kontratuak
- 4. Instrukzio hauek arautzen dituzten kontratazioaren printzipio nagusiak**
- 5. Instrukzio hauek arautzen dituzten kontratuen izaera eta aplikatzekoa den araubide juridikoa**
- 6. Kontratazio-organoak**
- 7. LANTIK SArekin kontratatzekeo ahalmena**
- 8. Eska daitezkeen bermeak**
- 9. Esleitzeko prozedura**
 - 9.1 Prozedura orokorrak. 2. maila
 - 9.2 Prozedura erraztuak. 1. maila
 - 9.3 Kontratatzekeo beste prozedura batzuk
 - 9.4 Hornitzaileekiko akordio irekiak
 - 9.5 Kontratuak formalizatzea
- 10. Publizitatea**
- 11. Jurisdikzio eskuduna**

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK****1. Helburua**

Legegintzako 3/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (SPKLTB) onetsi duena 191 b) artikuluan xedatzen duenaren arabera, LANTIK SA sektore publikoaren parte da, lege horren 3.3. b) artikuluan agertzen diren moldeetan, eta esleitzeko ahalmena du, nahiz eta ez izan administrazio publikoa. Hori horrela, legea betetzeko, harmonizaturiko erregulaziopean ez dauden kontratazioak arautzeko LANTIK SArene barne prozedura definitzea da instrukzio hauen helburua, publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatuta egon dadin eta kontratua ez dakion esleitu eskaintza ekonomiko onena egiten duenari.

Instrukzio hauek 2012ko martxoaren 23an onartu zituen, akordio bidez, LANTIK SArene Administrazio Kontseiluak; 2012ko martxoaren 24an sartuko dira indarrean, eta egun horretatik aurrera abiarazten diren kontratazio-espeditente guztietan aplikatuko dira.

Instrukzio hauek nahitaez beteko ditu LANTIK SAK barne-eremuan. Gainera, instrukzio hauetan arautzen diren kontratuak esleitzeko prozeduretan parte hartu nahi duten guztien eskura jarriko ditu, eta LANTIK SArene kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

2. Instrukzioen interpretazioa

Instrukzio hauen ondorioetarako, hasierako letra maiuskulaz ageri duten terminoek instrukzioetan definitutako esanahia izango dute, eta instrukzioetan definituta ez daudenek SPKLTBn termino horietarako ezarrira dagoen esanahia izango dute.

Instrukzioen arabera SPKLTBko agindu bat egokituta aplikatu behar bada edo ez bada erabat edo partzialki aplikagarria, egokitzapen edo indargabetze horiekin egindakotzat jo behar dira agindu horrexetara igortzen duten eta instrukzio hauen arabera aplikagarriak diren SPKLTBren beste artikuluko batzuk.

Kontratuen balioa SPKLTBren 76. artikuluan jasotzen diren arauen arabera kalkulatu da, eta ez da sartuta egongo Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

SPKLTBren II. Eranskinen 17-27. kategorietan agertzen diren zerbitzu-kontratuei dagokienez instrukzio hauetako 8. atalean adierazten diren zenbatekoak eta LANTIK SAK egiten dituen kontratuak harmonizaturiko erregulaziopean daudela jotzeko besteak diren zenbatekoak eguneratuak daudela joko da, halakorik badago, Europako Batzordeak SPKLTBren hamaikarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen moldeetan ezarritakoen arabera.

3. Kontratu-motak

Instrukzioak LANTIK SAK egiten dituen kostu bidezko kontratu guztietan aplikatuko dira, zeinahi delarik ere kontratu horien izaera, honako kasu hauetan izan ezik:

- a) SPKLTBren 4. artikuluan agertzen diren negozio eta harreman juridikoetan.

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

- b) SPKLTBren 13. artikulua eta horrekin bat datozen beste artikuluen arabera harmonizaturiko erregulaziopean eta SPKLTBren 190. artikuluan xedatutakoaren arabera esleituko diren kontratuetan.
- c) Aplikatzekoa den sektoreko araudiak arautu edo berariaz salbuesten dituen eta araudi horrek xedatzen duenaren arabera esleituko diren kontratu eta negozioetan.

Aurreko salbuespenak egin ondoren, instrukzio hauek nagusiki LANTIK SAK egiten dituen kontratu hauei aplikatuko zaizkie:

3.1. Obra-kontratuak

Obra-kontratuen helburua da obraren bat edo SPKLTBren I. Eranskinean zerrendaturiko lanetariko bat egitea edo edozein bitartekoren bidez LANTIK SAK zehazturiko premiei erantzuten dien obra bat egitea. Zerbitzu horiez gain, dagokion proiektuaren idazkuntza ere bil dezake.

Honako hau hartzen da obratzat: eraikuntzako edo ingeniari-tza zibileko lanen multzoaren emaitza, berez funtzio ekonomiko edo tekniko bat betetzekoa dena, betiere xedetzat ondasun higiezin bat badauka.

3.2. Hornidura-kontratuak

Helburutzat produktu edo ondasun higigarrien erosketa, finantza-errentamendua edo errentamendua, erosteko aukerarekin edo gabe, dutenak dira.

Bereziki honako hauek hartzen dira hornidura-kontratutzat:

- Enpresaburuak hainbat ondasun ondoz ondo eta prezio bateratuan entregatzeko betebeharra duen kontratuak, guztizko zenbatekoa zehatz-mehatz zertan definitu gabe kontratua egitean, entregak LANTIK SAKren premien mende daudelako.
- Telekomunikazioetako edo informazioa tratatzeko ekipo eta sistemak eta haien gailu eta programak erostea, alokairuan hartzea eta azken horiek erabiltzeko eskubidea lagatzea helburu dutenak.
- Fabrikaziokoak; horien arabera, aurrez LANTIK SAK finkaturiko ezaugarri bereziei jarraiki landu behar da edo dira hornitzaileak entregatu beharreko gauza edo gauzak, LANTIK SAK beharrezkoak diren materialak, osorik edo zati batean, ekarri behar baditu ere.

3.3. Zerbitzu-kontratuak

Jarduera baten garapenean sendotzekoak diren prestazioak edo obra edo hornidura baten bestelako emaitza lortzea helburu duten kontratuak dira zerbitzukoak. SPKLTBren II. Eranskinean definitutako kategorien arabera banatzen dira.

Zerbitzu-kontratutzat jotzen dira, halaber, neurrira egindako ordainagailu-programak erosteko kontratuak.

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

4. Instrukzio hauek arautzen duten kontratazioaren printzipio nagusiak

Instrukzio hauek aplikatuko zaizkien kontratuak SPKLTBren 1. artikuluan jasotako printzipioek arautuko dituzte; nolahi ere, publizitate, lehiaketa, gardentasun, konfidentziasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera esleituko da kontratua, SPKLTBren 191. artikuluari jarraituz.

Aurreko paragrafoan adierazitako printzipioak kontuan hartu direla bermatzeko, LANTIK SAK instrukzio hauen arabera izapidetzen dituen kontratazio-prozeduretan, printzipio horiek beteko dira beti kontratazio-organoen jardunean.

Instrukzio hauetako hurrengo ataletan jasotzen diren arauak gordez joko dira betetzat printzipio horiek; arau horiek aplikatu eta interpretatzeko, honako jarraibideak hartuko dira kontuan:

- a) Publizitatearen printzipioa betetzat joko da, baldin eta, parte har dezaketean lizitatzailer guztien mesedetan, hedabide egoki eta behar bezain eskuraerazak erabili badira. Hedabide horiek LANTIK SAren kontratazioari buruzko informazioa eman behar dute eta merkaturia lehiaketara irekitzeko modua egin behar dute.
- b) Gardentasunaren printzipioa betetzat joko da, baldin eta, dagokion kontratua esleitu aurretik, parte har dezaketean lizitatzailer guztiei lizitazioan parte hartzeko interesa dutela adierazteko modua emango dien informazio egokia zabaldu bada. Halaber, printzipio hau betetzeko, parte-hartzaile guztiek esleitu asmo den kontratuari aplika dakizkioken arauak aurrez ezagutzeko aukera izan behar dute, eta ziur egon behar dute arau horiek modu berean aplikatuko zaizkiela erakunde guztiei.
- c) Izan daitezkeen lizitatzailer sarbidea eta parte-hartzea errazteko beharrezko neurriak hartuko dira, instrukzio hauetan jasotakoaren arabera, kontratua eskaintza ekonomiko onenari esleitzeko.
- d) Enpresaburuak isilpeko izendatutako informazioa ez zabaltzeko betebeharra beteta errespetatuko du LANTIK SAK konfidentziasunaren printzipioa, betiere hala izendatzeko arrazoirik bada, eta, bereziki, eskaintzen sekretu tekniko edo komertzialak eta isilpeko ezaugarriak ez zabaltzeko betebeharra beteta. Halaber, printzipio hau aplikatzeko, kontratistek errespetatu egin beharko dute sarbiderik ez duten informazio horren isilpekotasuna, agiritan edo kontratuan izaera hori eman bazaio edo berez duen izaeratik hala tratatu behar bada.
- e) Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bermatzeko, prozeduren inpartzialtasuna eta ekitatea bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira. Neurri horiek honako hauek izango dira gutxienez:
 - i) Kontratuen helburua inor ez diskriminatzeko moduan deskribatuko da beti, eta ez da aipatuko ez fabrikazio edo etorki jakinik, ez produktu partikularrik, ez marka, patente, mota, jatorri edo produkzio jakinik, non eta ez den behar bezala justifikatzen gisa honetako erreferentziaren bat egin izana eta erreferentzia edo "antzekoarekin" batera ez doan.
 - ii) Ez da inposatuko inolako baldintzarik Europar Batasuneko beste estatukideetako lizitatzailer aurrean diskriminazio zuzen edo zeharkakorik dakarrenik.
 - iii) Baldin eta hautagaiei tituluak, ziurtagiriak edo bestelako frogagiriak aurkezteko eskatzen bazaie, titulu, ziurtagiri eta bestelako diplomak elkarren arteko

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

ezagutzeko printzipioaren arabera onartuko dira beste estatukide batzuetako dokumentuak.

- iv) Interesa erakusteko edo eskaintzak aurkezteko emandako epeak egokiak izango dira, beste estatukideetako enpresek behar bezalako ebaluazioa egiteko eta eskaintzak aurkezteko modua izan dezaten.
- v) Baldin eta kontratuen prozeduretan hornitzaile bat baino gehiago lehiatzen bada, kontratuari buruzko informazio berbera eta baldintza berberetan izango dutela bermatuko du LANTIK SAK.

5. Instrukzio hauek arautzen dituzten kontratuen izaera eta aplikatzekoa den araubide juridikoa

LANTIK SAK egiten dituen kontratuak pribatutzat joko dira beti, SPKLTBren 20.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Harmonizaturiko erregulaziopean ez dauden kontratuak egiten dituzten sektore publikoko erakundeek bete beharreko xedapenen mende egongo da instrukzio hauek arautzen duten LANTIK SAren kontratazioa, SPKLTBk xedatzen duenaren arabera. Zehazki, horrek esan nahi du SPKLTBren I. Liburuan ("Sektore publikoaren kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen elementu estrukturalak") jasotako arauak aplikatuko direla, edukiagatik LANTIK SARI aplikatzekoak badira, administrazio publiko gisa kalifikatu ezin den sektore publikoaren barruko botere esleitzalea den aldetik.

6. Kontratazio-organoak

Kontratazio-organoak kasuan-kasuan erabakiko dira, estatutuetan eta LANTIK SARI aplikatu beharreko gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera; nolahi ere, beste organo batzuei baliozki egin ahal zaizkien ordekaritzak eta ahalordetzeak egin ahalko dira.

7. LANTIK SAREkin kontratatzeko ahalmena

LANTIK SAREkin honako hauek soilik egin ahalko dute kontratua: jarduteko ahalmen erabatekoa duten pertsona fisiko edo juridikoek, izan espainiarrak edo atzerritarrak, betiere kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute.

Kasuan-kasuan exijitzen diren ahalmen eta kaudimenaren gaineko gutxieneko baldintzek kontratuaren helburuari lotuta egon beharko dute eta harekin proportzionalak izan beharko dute.

Sektore publikoko erakunde guztiei aplikatzekoak zaizkien SPKLTBren xedapenak alde batera utzi gabe, kasuan kasuko lizitazioak ezartzen duenaren arabera egiaztatuko da kontratatzeko kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala, kontratuaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta; kontratazio-organoak egoki iritzi gero, SPKLTBren 75-79. artikuluek xedatzen dutena aplikatu liteke.

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

Halaber, SPKLTBren 64.5. artikuluekin bat, kontratuaren egoera eta ezaugarrien arabera, eska liteke, halakorik bada, enpresaburuaren kaudimena dagokion sailkapenaren bidez egiaztatzeko.

Lizitazioaren iragarkian adieraziko da eta kontratuaren agirian zehaztuko da enpresaburuak kaudimen aldetik gutxienez zein baldintza bete behar dituen eta kaudimen hori egiaztatzeko zein dokumentazio eskatuko den, baldin eta instrukzio hauen arabera halako eskakizunik bada.

8. Eska daitezkeen bermeak

Kontratuaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta, kontratazio-organoak berme bat jartzeko eskatu ahalko die lizitatzailerei edo hautagaiei, kontratua esleitu arte haien eskaintzak mantentzeko gastuei erantzuteko; horrez gain, esleipendunari ere berme bat eskatu ahalko dio, zerbitzua behar bezala emango duela ziurtatzeko.

Bermeen zenbatekoak kasuan-kasuan ezarriko da, kontratuaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Eskatzen diren bermeak SPKLTBren 96. artikuluan aurreikusitako moldeetan aurkeztu ahalko dira.

9. Esleitzeko prozedura

Argibide hauek aplikatzeko eta kontratu bakoitza esleitzeko zein prozedura eta baldintza aplikatu behar diren zehazteko, maila hauek bereizten dira (aurrerantzean, bakarrari buruz aritzean "maila", eta biei buruz aritzean "mailak"):

- a) 1. maila. Maila honi lotuta egongo dira 50.000 eurotik behera baloratutako kontratuak, kontratu-mota edozein delarik ere.
- b) 2. maila. 50.000 euroren eta honako zenbateko hauen artean baloratutako kontratuak:
 - 4.999.999 euro, obra-kontratuak badira.
 - 199.999 euro, bestelako kontratuak badira.

Lehenik eta behin, prozedura orokorra izenekoa zehaztuko da; prozedura horixe aplikatuko zaie 2. mailako kontratuei. Gero, 1. mailako kontratuei aplikatuko zaizkien berezitasunak zehaztuko dira.

9.1. Prozedura orokorra. 2. maila

2. mailako kontratuei aplikatuko zaie prozedura orokorra; hau da:

- Hornidurakoei: 50.000 € eta 199.999 € bitartekoak badira.
- Zerbitzuetakoei: 50.000 € eta 199.999 € bitartekoak badira.
- Obretakoei: 50.000 € eta 4.999.999 € bitartekoak badira.

Nolanahi ere, kontratua sustatzen duen arloak hala proposatuz gero, aplikatu ahalko zaie 50.000 euro baino gutxiagoko kontratazioei ere.

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

9.1.1 Kontratazio-espeditentea

LANTIK SAK kontratatzeko oinarritzko baldintzen agiria egingo du aurrez, eta agiri horretan honako alderdi hauek zehaztuko ditu gutxienez:

- Lizitatu ahal izateko baldintzak (ahalmen eta kaudimen ekonomiko eta teknikoak).
- LANTIK SAK kontratua esleitzeko jarraitu behar dituen izapideak.
- Eskaintzak baloratzeko irizpideak.

Gainera, LANTIK SAK espezifikazio teknikoen txostena egingo du, eta hor kontratazioaren helburua zein den eta zein baldintza tekniko eskatzen diren azalduko du.

Lizitazioaren gehienezko aurrekontua izango da kontrataziorako gehienez jarriko den prezioa. Eskaintza guztiak kontuan hartuta lizitazioaren gehienezko aurrekontu hori gainditzen bada, LANTIK SAK esleitu gabekotzat joko du lizitazioen prozedura hori.

9.1.2 Lizitazioaren publizitatea.

LANTIK SAK lizitazioari buruzko informazioa argitaratuko du, kontratatzailearen profilean sartutako agiriak barne (LANTIK SAren webgunea: www.lantik.bizkaia.net), interesatuta dauden lizitatzailer guztiek izan dezaten lizitaziora aurkezteko modua, instrukzio hauetako 10. atalean adierazitakoaren arabera.

9.1.3 Eskaintzak aurkezteko epea.

LANTIK SAK kasuan-kasuan aplikatzekoak diren epeak zein diren adieraziko du dagokion iragarkian edo, halakorik bada, agirian, lizitatzailerak eskaintzak aurkez ditzaten. Jartzen diren epeak egokiak izango dira, izan daitezkeen lizitatzailer guztiek, Europako Batasuneko beste estatukide batzuetako enpresek barne, aukera izan dezaten ebaluazio egokia egin eta eskaintzak aurkezteko.

9.1.4 Eskaintzak aztertzea eta baloratzea.

Eskaintzak aurkezteko epea igaro ondoren, arlo sustatzaileak eskaintzak aztertu, egituratu eta baloratu egingo ditu, prezioa ez beste irizpideen arabera.

9.1.5 Esleitzeko proposamena.

Kasuaren arabera, Zuzendaritzaorde Nagusi Teknikoak, Giza Baliabideen Zuzendaritza eta Idazkaritzak eta Kontratazio Mahaiak egingo dute esleipen-proposamena eskaintza ekonomiko onena iruditzen zaion horren alde, edo, bestela, argibideak edo informazio osagarria eska dezakete.

Proposatutako enpresari esleitu ahalko dio kontratua kontratazio organoak, edo, bestela, beste eskaintzailearen bati esleitu ahalko dio, baldin eta uste badu haren eskaintza dela ekonomikoki onena; kasu horretan, arrazoitu egin beharko du erabaki hori zergatik hartu duen.

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

9.1.6 Esleipena jakinaraztea.

Lizitazioaren prozedura amaitu ondoren, LANTIK SAK kontratua esleitu zaiola jakinaraziko dio esleipendunari eta jakinaren gainean jarriko ditu prozeduran parte hartu duten gainerakoak ere. Halaber, kontratua formalizatzeko beharrezko dokumentazioa eskatuko dio esleipendunari. Gainera, esleipenaren emaitza kontratatzailearen profilean argitaratuko da (LANTIK SAren webgunea: www.lantik.bizkaia.net), kontratua nori eta zenbatean esleitu zaion adieraziz.

9.2. Prozedura erraztuak. 1. maila

Prozedura erraztuak 1. mailako kontratazioetan aplikatuko dira.

Jarraian azalduko diren prozedura erraztuetako zein aplikatuko den zehazteko, kontratu hauek bereiziko dira 1. mailan:

- i. 18.000 euroan edo 18.000 eurotik gora eta 50.000 eurotik behera baloratutako kontratuak (**1A mailako kontratuak**).
- ii. 18.000 eurotik behera baloratutako kontratuak (**1B mailako kontratuak**).

Nolanahi ere, 1B mailako kontratuetan ere aplika daiteke 1A mailako kontratuetarako jarraian azalduko den prozedura, kontratua sustatu duen arloak hala proposatuz gero.

9.2.1 1A mailako kontratuetarako prozedura erraztua

Prozedura honetan ez da nahitaezkoa deialdiaren publizitatea egitea.

Kontratazioaren oinarriko baldintzen agiria eta espezifikazio teknikoaren txostena egin beharko dira, prozedura orokorraren kasuan bezala, eta, gainera, hiru eskaintza eskatuko dira gutxienez. Gutxieneko eskaintza kopuru hori eskatzerik ez badago, espedientean justifikatuko da.

Adierazitakoa alde batera utzi gabe, kontratatzailearen profilean LANTIK SAren telefonoa eta helbidea azalduko dira, interesa izan dezaketen lizitatzailleek lehiaketara atera den 1A mailako kontratuetarako prozedura erraztuari buruzko informazioa eskatzeko modua izan dezaten.

Kontratua esleitu ondoren, kontratua idatziko da, eta jakinaren gainean jarriko dira onartu ez diren eskaintzen lizitatzailleak.

9.2.2 1B mailako kontratuetarako prozedura erraztua

1B mailako kontratuak zuzenean esleitu ahalko zaizkio jarduteko ahalmena duen eta zerbitzua emateko beharrezko gaitasun profesionala duen edozein enpresabururi, eskabide-gutun bidez enpresaburu bakar bati bere eskaintza bidal dezan eskatuta.

Ez da kontratazioaren oinarriko baldintzen agiririk egin beharko, ez eta espezifikazio teknikoaren txostenik ere, prozedura orokorraren kasuan bezala.

Espedientea izapidetzeko, bakar-bakarrik gastuaren onespina, aurrekontua, adierazitako eskabidea eta dagokion faktura besterik ez da beharko.

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

9.3. Kontratatzeke beste prozedura batzuk.Prozedura negoziatua.

Obra, hornidura eta zerbitzu kontratuetan erabili ahalko da prozedura hau, SPKLTBren 170, 171, 173 eta 174. artikuluetan jasotako egoeretan, eta SPKLTBren 169. artikuluan eta horrekin bat datozen beste artikuluetan jasotakoaren arabera arautuko da prozedura.

Kasu horietan, zilegi bada, hiru enpresari eskatuko zaie eskaintza aurkez dezaten. Hala ez bada, horren zergatia azalduko da kontratazioaren espedientean.

Zehazki, baldin eta arrazoi tekniko edo artistikoengatik edo eskusiba-eskubideen babesarekin zerikusia duten arrazoiengatik kontratua hornitzaile bakar bati eskain badakioke, arlo sustatzaileak hori azaltzeko txostena egin beharko du, eta horrekin batera egoera halakoa dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko du (esklusibotasun-gutuna, jabetza intelektual edo industrialaren eskubideen titulartasuna egiaztatzen duten agiriak).

Elkarrizketa lehiakorra.

SPKLTBren 180. artikuluan adierazten diren egoerak aldi berean gertatzen direnean, elkarrizketa lehiakorraren prozedura aplikatzea erabaki ahalko da. Elkarrizketa hori SPKLTBren 179-183. artikuluetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

9.4. Hornitzaileekiko akordio irekiak.

Kontratazioa arrazionalizatzeko, LANTIK SAK hornitzaileekiko akordio irekiaren prozedura sustatu ahalko du, SPKLTBren 199-201. artikuluetan xedatzen denaren arabera, behin ere 4 urtetik gorakoa izango ez den aldi jakin batean esleitu asmo diren kontratuak zein baldintza izango dituzten ezartzeko. Sistema honen arabera esleituko diren kontratuak kontratazioko barne instrukzio hauetan jasotakoari lotuko zaizkio.

LANTIK SAK, aurreko aginduetan adierazitakoari lotuko bazaio ere, erabili ahalko ditu SPKLTBren 198.4. artikuluan jasotzen diren bitarteko osagarriak ere atal honetan adierazitako sistema garatzeko eta esparru horretan kontratuak esleitzeko.

Hornitzaileekiko akordio irekiari lotu ahalko zaizkio ondasun kopuru bat erosteko edo zerbitzu mota jakin bat emateko diren kontratu guztiak, betiere hornitzaileak asko badira eta arrazoi bategatik edo besteagatik prezioak gorabeherak baditu, esate baterako, mikroinformatikako ekipoak, kontsumigarriak eta abar erosi behar badira.

Inola ere ezin egingo da hornitzaileekiko akordio irekirik neurritz kanpo eta lehiarako eragozpenak jarritz, murriztuz edo faltsutuz.

Hornitzaileekiko akordio irekiaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, eta aldian-aldian baita hedabide alternatiboetan ere.

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

Hasierako faseko izapidea prozedura orokorrean adierazitako horixe izango da. Kontratazioaren oinarritzko baldintzen agirian ezarriko dira hornitzaileekiko akordio irekiaren babesean esleitu diren kontratuak esleitzeko funtzionamendu-arauak.

LANTIK SAK hornitzaileekiko hainbat akordio ireki sustatu ahalko ditu, akordio horien izaeraren arabera.

9.5. Kontratuak formalizatzea

Non eta berariazko agiria izan eta hor bestelakorik xedatzen ez den, LANTIK SAK instrukzio hauei jarraiki egiten dituen kontratuetan nahitaez adieraziko dira honako datu hauek:

- a) Alderdien identifikazioa.
- b) Sinatzaileek kontratua izenpetzeko ahalmena badutela egiaztatzen duen agiria.
- c) Kontratuaren xedearen definizioa.
- d) Kontratuari aplikatzekoa zaion legediaren erreferentzia.
- e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda. Kontratuan hala adierazten bada, zerrenda hori hierarkizatua egon ahalko da, alderdiek hitzartutako lehentasun-ordenaren arabera; kasu horretan, non eta ageriko akatsik gertatu ez den, bakoitzari dagokion lehentasuna zehazteko erabiliko da hitzartutako ordena, baldin eta hainbat dokumenturen artean kontraesanik badago.
- f) Prezio zehatza edo zehazteko modua.
- g) Kontratuaren iraupena edo kontratua hasteko eta amaitzeko kalkulatu diren datak, bai eta kontratuaren luzapena edo luzapenak ere, baldin eta halakorik aurreikusita badago.
- h) Prestazioak hartu, entregatu edo onartzeko baldintzak.
- i) Ordaintzeko baldintzak.
- j) Zein egoeratan den zilegi kontratua bertan behera uztea .
- k) Halakorik bada, kontratistari ezarri zaion konfidentialtasunaren betebeharraren luzapen objektiboa eta denborazkoa.

Oro har, kontratista hautatzen denetik kontaktzen hasita gehienez ere hamar egun naturaleko epean formalizatuko da kontratua, betiere ez bada beste eperik ezarri dagozkion agiri edo eskaintzetan.

LANTIK, S.A.ren kontratuaren baiespena kontratuaren formalizazioaren bidez adieraziko da, eta horrela kontratua perfektionatuta dagoela ulertuko da.

10. Publizitatea

Kontratuaren maila edozein delarik ere, 50.000 eurotik gora baloratu bada, LANTIK SArek kontratatzailearen profilean sartu beharko da lizitazioari buruzko informazioa. Nolanahi ere, bestelako hedabideak ere erabili ahalko dira, baldin eta kontratuaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta hala egitea beharrezkotzat jotzen bada;

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

bestelako hedabide horien barruan sartzen da aldizkari ofizialetara, tokiko argitalpenetara eta Europar Batasunaren Egunkari Ofizialera jotzeko aukera, mugarik gabe; beharrezkotzat jotzen bada, ekitaldi bakoitzean edo hainbat urteko aldi batean esleitu asmo diren kontratuei buruzko iragarkiak zabaldu ahalko dira aurrez.

Lizitazioaren iragarkiak honako informazio hau edukiko du:

- a) Kontratuaren xehetasun funtsezkoenen deskribapen laburra.
- b) Kontratua esleitzeko prozedura; eskaintzak aurkezteko epea zein den ere adieraziko da.
- c) LANTIK SArekin harremanetan jartzeko datuak.

Betiere kontratuaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta hala egitea komeni bada, iragarkiaren edukia zabaldu edo informazio gehigarria gehitu ahalko da kontratatzailearen profilean.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa aplikatzeari utzi gabe, publizitatea bazter utzi ahalko da, baldin eta prozedura negoziatua aplikatu behar zaien SPKLTBren 170-175. artikuluetan jasotako egoeraren bat bada, eta lege horretako 177. artikuluan xedatzen denaren arabera ez bazaie publizitaterik egin behar.

11. Jurisdikzio eskuduna

Jurisdikzio-ordena zibila izango da instrukzio hauetan aipatzen diren kontratuak prestatu, esleitu, bete eta iraungitzearekin lotutako auziak ebazteko organo eskuduna.

**LANTIK SA-REN HARMONIZATURIKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN
KONTRATAZIOAK ARAUTZEKO BARNE INSTRUKZIOAK**

Berrikuspena: 01

Indarrean jarri den data: 2008/05/29

BERRIKUSPENEN HISTORIA			
Berrikuspena	Kontseiluak onetsi zuen eguna	Indarrean jarri zen eguna	Aldaketak
00	2008/05/28	2008/05/29	Lantik S.A.n arauketa harmonizaturik gabeko kontratazioetarako erabili beharreko Barneko Jarraibideen onespena.
01	2012/03/23	2012/03/24	<ul style="list-style-type: none"> Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen (SPKL) aipamenaren ordezt, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina (SPKLTB) onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuarena jarri zen. Erkidegoko atalasea eguneratu egin zen, 206.000 eurotik 200.000 eurora jaitsiz hornidura edo zerbitzuetarako eta 5.150.000 eurotik 5.000.000 eurora obretarako. Lantik S.A.ko Administrazio Kontseiluak bertsio berria zein egunetan onetsi zuen erantsi zen.